

# Antola zaitez Emakume Aske eta Borrokalariekin

## Eraiki gurekin

# feminismo iraultzaile eta antikapitalista

Kapitalismoaren krisiak ageria utzi du emakume gazte eta langileok bizi dugun zapalkuntza basatia. Gero eta handiagoak diren desberdintasunen, lan zapalkuntzaren eta Elizak eta gobernu atzerakoiek zabalitzen dituzten aurreiritzien biktimak izateaz gain, emakume langileok eguneroko indarkeria jasaten dugu, eta horrek milaka eta milaka hildako utzi ditu Estatu espainiarrean eta mundu osoan.

Sistema kapitalistaren baitan, emakume langileen aurkako erasoek hamaika aurpegi dituzte, eta guztiak dira gaiztoak. Halere, eraso fisikoek erakusten dute bizi dugun degradazio maila: gutxi gorabehera emakumeon % 70ak bizi izan dugu, bizitzan behin bada ere, indarkeria matxistaren kasu bat; 8 ordutik behin bortxaketa salaketa bat jasotzen da eta, azken 7 urteetan, 800 emakume erail ditu indarkeria matxistak Estatu espainiarrean. Zifra horiek izurrite nazkagarri honen izebergaren punta besterik ez dira.

Horren agerikoa izan ez arren, kriminala den zapalkuntzaren beste irudia eskuineko gobernu kapitalistek eta “sozialdemokratek” aplikatutako politika kapitalisten ondorioak dira. Sistema honen baitan, prekaritatean bizitzera kondenaturik gaude, lan eta soldata txarrak izatera. Osasunean, hezkuntzan eta menpekotasunerako laguntzetan egindako murrizketen ondorioz, kasu askotan, gure gain hartu behar izan ditugu umeak, senitartekoak eta gaixoak zaintzeko ardura. Jantokietako beketan egindako murrizketen ondorioz, eta haur eskola publikoetan plazarik gabe gelditu garenaz, etxeko lanen ardura hartu behar

izan dugu. Hori dela eta, independentzia ekonomiko ukatu zaigu, eta etxeko lau paretan artera mugatu gaituzte.

Bestalde, Elizaren botereak eta emakumeen aurkako aurreiritziak zabaltzeko duen inpunitateak jarrerara sexistak, homofoboak eta patriarkalak elikatu ditu, eta onartezina da hori. PPK eta PSOEko zuzendaritzak bermatu dute Eliza Katolikoak hezkuntza eragin itogarria izaten jarrai dezan, eta heziketa sexual osoa eta doako antisorgailuak izatea ukatu digute.

Emakume gazte eta langileak garen neurrian, feminismo antikapitalista eta iraultzailea defendatzen dugu, eta uste dugu gure eskubideen aldeko borroka ez dela genero kontua bakarrik; klaseko auzia ere bada uste dugu. Sistema kapitalistaren baitan, denok ez gara berdinak, eta emakume guztiak ez gara berdinak. Askok, hala nola Esperanza Aguirrek, Cristina Cifuentesek, Inés Arrimadasek eta Patricia Botínek, sistema kapitalista eta emakumeen zapalkuntza eragiten dituzten lege guztiak defendatzen dituzte.



**Ikasle  
Sindikatuak**

**EZKER  
IRULTZAILEA**



Sutsuki defendatzen dituzte lan prekarioak, emakumeentzako soldata baxuak, lan egun itogarriak eragiten dituzten lan erreformak eta murrizketak. Gainera, botere ekonomiko eta politikoen boterearen alde agertzen diren bakoitzean, paper patriarkal eta zapaltzaile berbera dute: genero zapalkuntza ez dugu maila berean jasaten. Zer antzekotasun dugu langile emakumeok beraiekin? Bat ere ez! Emakume izate hutsak ez gaitu barrikadaren alde berean jartzen. Aitzitik, beraiek beren klasearen, aberatsen, beren sistemaren interesak defendatzen dituzte, horrela beren bizi estiloa eta pribilegioak bermatzen dituztelako.

## Antolakuntza eta borroka

Ondo dakigu inposatu nahi digutenari aurre egiteko modu bakarra borroka kolektiboa eta kaleko mobilizazioa direla. Askotan erakutsi dugu emakume gazte eta langileok daukagun indarra mugitzen garenean: Estatu Batuetan Donald Trumpen aurkako manifestazio jendetsuetan, #NiUnaMenos mugimenduan Latino Amerikan, Polonian abortu eskubidearen aldeko borrokan, etxe kalera-teen aurkako borroketan, lan baldintza duinen aldeko Kellyn borroketan, Coca Cola En Luchako Espartanen borrokan lan gatazka aurrera eramateko. Iragan martxoaren 8an milioika izan ginen mundu osoko kaleetan indarkeria matxistaren eta zapalkuntza kapitalistaren aurka oihu egin genuen emakumeak.

Ikasle Sindikatukook eta Ezker Iraultzailekook ondo dakigu emakumeen askapenak garrantzia handia duela mundua eraldatu nahi dugun guztiontzat. Hori dela eta, Emakume Aske eta Borrokalariak plataforma feminista, antikapitalista eta iraultzailea sortu dugu, kapitalismoaren indarkeria eta zapalkuntza jasaten dugun emakumeon indarrak batzeko eta gizartea aldatzeko borrokarikin lotzeko.

## Emakumeen aurkako indarkeriarik ez! Emakume bat gutxiago ez!

- Zigor eredugarriak emakumeen bortxaketa, tratatu txar fisiko eta psikologiko, hilketa eta desagertze guztien aurka. Beren jarrerarekin erasotzaileei mesede egiten dieten polizia eta epaile guztiak zigortu eta kale-ratu behar dira.
- Baliabide materialak eta babes-etxeak tratatu txarrak jasan dituzten emakumeentzat. Lan postu duina, lan-gabezia laguntza mugagabea eta etxebizitza duina tratatu txarren biktimentzat eta beren seme-alabentzat.

## Gure gorputza, gure erabakia!

- Abortatzeko eskubidea, doan eta seguru. Errepresiorik ez!
- Familia planifikaziorako kalitatezko eta doako zerbitzu publikoa. Heziketa sexual osoa institutu eta fakultate guztietan, eta antisorgailuak doan. Kanpora Eliza eta erlijioa hezkuntza publikotik.
- Prostituzioaren eta emakumeen trafikoaren aurka. Emakumeen askapena lortzeko, guk geuk izan behar dugu geure gorputzaren jabe, eta ez dugu bizirauteko gure gorputza erabili behar. Alokairuko sabelen aurka. Hori ere, prostituzioa bezala, betikoen mesedetan, milioiak mugitzen dituen beste negozio bat da.

## Lan berdina, soldata berdina! Suntsitu etxeke lanen kateak!

- Lan erreforma indargabetu behar da. Soldata duinak emakume langileentzat. Enpresek ezin diote emakumeak kontratatzeari utzi haurdun daudelako, estandar estetikoak betetzen ez dituztelako edo azalaren koloreagatik.
- Zigor eredugarria laneko jazarpen sexualari.
- Sei hilabeteko amatasun eta aitatasun baimena, soldataren % 100arekin. Doako haur eskola publikoak auzoetan eta lantokietan amatasuna eta lana bateratzeko.
- Arropa garbitzeko, jana prestatzeko, etxea garbitzeko zerbitzu publikoa eta doakoa, etxeke lanen eskalabotzarekin bukatzeko.

## Etxera iristean ez dugu ausartak izan nahi, aske izan nahi dugu!

- Emakumeen gorputza ez da objektu bat, horrela hartzeak eraso matxistak elikatzen ditu. Emakumeen gorputza erabiltzen duten iragarki sexistak guztiak ezabatu behar dira.
- Kanpora ehungintzako, kosmetikako, dietetikako eta kirurgia estetiko multinazional handiek inposatu diguten edertasun kanona. Zentzugabe eta irreal izateaz gain, aurreiritziak, traumak eta gaixotasunak eragiten ditu.